

# Euskararen Legearen sorrera

## Euskararen Legearen sorrera

(The process of creation of the Law on the Basque Language)



LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis

Euskaltzaindiko idazkariorde-kudeatzailea  
Plaza Barria, 15  
48005 Bilbo  
euskalbilbo@jet.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 39-44]

**a**ztergai dugun

Euskararen Erabilpena  
Arauzkotzeko Legearen sorrera  
nolakoa izan zen ematen zaigu  
jakitera lan honetan, prozesu hori  
gertutik jarraitu zuen Lizundia jau-  
naren eskutik: garai hartan bizi  
zen egoera politikoa,  
Legebiltzarreko bilkurak, artikulua  
batzuek sortarazi zituzten eztabai-  
dak...

**L**izundia, como partici-  
pe que fue en el proceso de crea-  
ción de la Ley de Normalización  
del Euskara, describe en este tra-  
bajo la situación política de aquel  
momento, las reuniones parlamen-  
tarias, las polémicas suscitadas en  
torno a algunos artículos, etc.

**L**izundia, en tant que  
participant au processus de créa-  
tion de la Loi de Normalisation du  
Basque, décrit, dans ce travail, la  
situation politique à ce moment-là,  
les réunions parlementaires, les  
polémiques suscitées autour de  
certains articles, etc.



Jaurlaritzak 1981eko maiatzaren 11n onartu bide zuen Euskararen Erabilpena Arautzeko Oinarrizko Lege Egitasmoa deritzana. Esan behar da Eusko Legebiltzarrean jadanik proposamen bat izan zela Talde Mistoaren izenean, Roberto Lertxundik aurkeztua, baina egia esan, bere arreba Isabel euskaltzale eta irakasle trebeak egina, lozorrotan zegoen Lege Egitasmo hori bizkortzeko. Legebiltzarreko hurrengo hilabeteen, hots, ekainaren 10ean, Mahaian onartu genuen Lege Egitasmo horren tramitazioa martxan jartzeko prozedura, Talde Parlamentarioei zuzenketak eta aldaketak proposatzeko 15 astegun emanaz.

Ondorioz, sei zuzenketa egon ziren, kronologikoki honela banatuak: APk bi osoko zuzenketa, Egitasmoa Gobernura berriz itzultzea eskatuaz. EEk 60 zuzenketa aurkeztu zituen, baina artikuluz artikulua eta ez Egitasmo osoari. SV taldeak 26 zuzenketa. EPKko Infante parlamentariak 11 zuzenketa. Esan behar da garai haretan HBk ez zuela bat ere parterik hartzen Legebiltzarrean. Hamabostaldia igaro eta gero Hezkuntza eta Kultura Batzorde Parlamentarioak Lege hau aztertzeko ponentzia bat izendatu zuen, boskote hauek osotua: Alberto Ansola Maiztegi (NV), Hezkuntza eta Kultura batzordeburua; Jose Luis Lizundia Askondo (EE), Hezkuntza eta Kultura batzordeburuordea; Joaquin Maria Aginaga Torrano (CV), batzorde idazkaria; Jose Antonio Maturana Plaza (SV) eta Juan Infante Escudero (Talde Mistoa).

Prozedura guztia nola joan zen zehaztea astunegia litzateke, oso luze joan baitzen. Tartean Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzatik Legea negoziatzeko agindua hartu zuen NV talde parlamentarioak. Lehendabizi, EE taldearekin eta gero atzenaldean beste biekin. Hala egin zen eta gogoratzekoa da eta horretan Pedro Miguel Etxenike Hezkuntza sailburuak eta Ramon Labaien Kultura sailburuak, nik baino gehiago jakin dezakete, nola atzetik "Espiritu Santu" bat egon zela, Mitxelena euskaltzain osoa, garai haretan beraien alderdikide zena. Beharrezko ikusten zuen errenteriar euskaltzain-irakasleak Lege hori ezin zela atera egitasmoen Gobernuak aurkeztuta zegoen bezalaxe, baizik eta ahal denik eta akordio handi batera iritsiz. Esan behar dut horretaz nirekin behin baino gehiagotan hitz egin zuela, ondo konpontzen baikinen, ez bakarrik Euskaltzaindiko lanetan, baita ere horrelako arazoetan, alderdi diferentziak mantendu arren. Urrun ikusten zuen gizona zen Mitxelena jauna eta euskalari ospetsua izatetik landa, bazeukan abertzale gutxik zeukaten naziozintza zentzu argia. Laster heldu zen bilera eta hain zuzen Legutianon, billerlar gudari-ohi baten Bekostatuan izan genuen bilera eta lan bazkari luzea. 1982ko maiatzaren amaieran izan zen.

Akordio osora iristeko asmo sendoa hartu genuen han bildutakoak. Ez zuen esperantza hori



Pedro Miguel ETXENIKE,  
Hezkuntza sailburua 1982an.

ekarri nonbait Etxenike jaunak, bezperan Ajuriaenean izandako bileran, Labaienek han esandakoaren arabera. Lege egitasmoa %100ean negoziatzeko asmoa hartu genuen bi talde abertzaleok eta %100 lortu ere. Geroago, negoziaketak jarraitu zuen Maturana jaunarekin eta horrekin ere %60-70ean esan genezake baietz. Baita ere

jadanik krisian sartuta zegoen CV taldearekin ere. Gehitu behar dut Joaquin Aginaga ucedista, Bilboko Ingeniari Eskolako zuzendari izandakoaren jarrera ere nahiko onargarria izan zela. Bera euskalduna ez izanik ere, gurasoak euskaldunak, Altsasukoak omen zituen. Talde Mistoko Santiago Griñon APkoak ere bere ideologia alde batera utzirik bere katalan burgesiaren zentzua erakutsi zuen puntu batzuetan. Oroitzen naiz nire alde jarri zela Euskaltzaindiaren zeregin akademikoa hizkuntza arazoetan 10. artikuluan, zeren eta bazekien, Institut d'Estudis Catalansek gauza bera egin zuela gerra aurreko autonomia garaian. Bistan zegoen bera ez zela, inondik nora abertzalea, baina bazuela horretan kultura maila bat, beren alderdikide Arostegi bilbotarrak, inondik nora ez zuena.

Lehenago esan dugu martxa oso geldoa izan zuela legegai honek, zeren eta ia urtebete, maiatzaren bukaeratik hurrengo urteko maiatzararte, tramitazioa lozorroan egon baitzen.


1982.eko martxoaren 17ko IV. Batzorde Parlamentarioaren, hots, Hezkuntza eta Kulturakoaren bilerako gai ordenean hau zioen deiak: "Informe de la ponencia sobre el proyecto de ley de Normalización Básica del Uso del Euskara": Expirado el plazo de enmiendas, el 15 de octubre de 1981 se constituye la Ponencia que estudiará el Proyecto de Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera, y que está compuesta por los Ilmos. Señores Parlamentarios: D. Alberto Ansola Maiztegui (Nacionalistas Vascos), D. José Antonio Maturana Plaza (Socialistas Vascos), D. José Luis Lizundia Askondo (Euskadiko Ezkerra), D. Joaquín M<sup>a</sup> Aguinaga Torrano (Centristas Vascos), D. Juan Infante Escudero (Mixto-PCE-EPK)". Txosten horretan legelariak ezartzen zituen zehaztaperen batzuen ondorioz, ikusten zen bigarren oharra: "Remitir a la Mesa del Parlamento Vasco las enmiendas formuladas por el Grupo Parlamentario Euskadiko Ezkerra al Proyecto de Ley Básica sobre Normalización del Uso del

Euskera, al objeto de su posible recalificación". Ez bakarrik ez genuen bertan legegariak dioena onartu, ez eta sinatu ere.

Lozorrotik ateratzeko esan behar da 1982.eko otsailaren 3ko IV. Batzordearen Hizkuntza eta Kultura Batzorde Parlamentarioaren agiria interesgarria dela, bere azken puntuan honako hau baitio: "El Sr. Presidente agradece a los representantes del Gobierno su presencia y comunica que se va a pasar al último punto del Orden del Día, ruegos y preguntas.- En este punto se establece un debate en el que toman parte todos los miembros de la Comisión y en el que se plantean algunos problemas relativos al funcionamiento interno de la misma, frecuencia de sus reuniones y aspectos relativos al retraso de un tema tan importante como es el Proyecto de la Ley de Normalización del Uso del Euskera, concluyendo el Sr. Presidente indicando que la Ponencia se reunirá a la mayor brevedad posible".

Maiatzaren 21eko osoko bilkuran interpelazio bat egin nion Gobernuari Euskararen Aholku Batzordearen garrantzia zela eta. Ramon Labaien Kultura sailburuak erantzun beharrean, Pedro Migel Etxenike Hezkuntzakoak erantzun baitzidan. Erantzunean, harrigarria gertatu zela, alegia, Etxenike jaunak Euskararen Legea kontsentsuatzeko eskaintza egin baitzidan eta handik denbora gutxira egun gutxitara gertatu baitzen Legutianoko bilera gogoangarria. Bezperan, prentsan, zenbait egunkaritan artikulua bat egin nuen "En memoria del amigo Juan Bautista Merino Urrutia, ilustre investigador vasco-riojanista" deritzana, zeinetan euskaltzain ohorezko errioxar hau goraiatzeko nuen eta bere hitzak jarri, euskaltzaletasunaren aniztasunaren lekuko.

Ekainean, eten gabe, jardun genuen Lege berriari buruzko negoziaketan, hasiera batean, Gobernuaren Talde Parlamentarioa eta biok eta geroztik, beste bi taldek, ekainaren 22an, jadanik sinatuak genituen "Enmienda transaccional" deitzen zirenak banan-banan eta beraien zenbaitzuk eranskin gisa jarri ditugunak. Kontu berri hau onuragarria etorri zen eta zenbaitetan oposizioa izan, aipamen batzuk egitearren, esate baterako, Hezkuntza arloko zenbait artikulutan adostasun osora iristeak ekarri zuen, besteak beste, ondorioetariko bat 1983ko 118. Dekretua, uztailaren 11koa izan zena, Legea Auzitegi Konstituzionaletik zenbait artikulutan igaro eta gero. Dekretu hau, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioen hizkuntza ofiziala erabileraren arautzea izan zen eta klase emankizunetan ondorioz bi eranskin ziren Eskolaurrean eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorrean: A eredu, B eredu eta D eredu deituko zirenak, eta bigarren eranskin bat BBB, UBI eta LH, alegia, gaztelaniaz, BUP, COU eta FP deritzanak erregulatuko zituen. Aukerarik oparoena baliatu da Legearen bigarren atalburu edo kapituluaz, hots, euskararen irakaskuntzako erabilpenaz.



Jose Luis LIZUNDIA 1983an.

Egia esan, Justizia arloan badu legeak ahultasun bat. Justizia administrazioan ez zuten balio izan guk egindako 10., 11., 12. eta bereziki, 16. eta 17. artikuluek. Are gehiago, Maturana jaunak ohartarazi zien Eusko Jaurlaritzari, Gobernuari, eta baita gainontzeko talde parlamentarioei, Justizia Administrazioan ez zeukala ezer erregulatzerik Eusko Legebiltzarrak. Ez zen hori egia edo egia osoa behintzat. Besterik da, aukera gutxi izatea. Agian, Gobernuak eta Talde Parlamentariak ausardia falta bat izan genuen nolabait mehatxu zen horri erantzuteko eta zerbait bederen ezartzeko, zeharka bederen, nahiz eta gero, osorik edo zati bat, Konstituzionalak ukatuko bazuen ere.

10. artikulua, gero, azkenean, 8. geldituko zenak, bazeukan hirugarren lerroka bat bi taldeen artean onartua. Honako hau zioena: "No obstante lo preceptuado anteriormente los poderes públicos podrán hacer uso exclusivo del euskara para el ámbito de la Administración Local, cuando en razón de la determinación sociolingüística del municipio, no se perjudiquen los derechos de los ciudadanos". Hasiera baten jarrita zegoen azkenean: "salvo que los interesados exijan la lengua no empleada". Estatalistek bakarrik ez zuten onartu, gehiago oraindik, Ramon Jauregik nolabaiteko mehatxua egin zigun Etxenike sailburuari eta bioi, Auzitegi Konstituzionalean ikusiko ginela. Hala gertatu zen eta galtzaile atera. Une batez kontseilaria prest zegoen kentzeko ere, baina nik esan nion, beraiek Madrildik uka dezatela eta ez hemendik. Hau esan beharra dago, zeren eta badirudi azkenengoz Aizarnazabalgo Udal Ordenantzak auzia lekuko, geroago, udal ordenantza mailakin

soluzionatzea inbentatu dela. "Diario de sesiones" delakoan bilduta egongo da nola adierazi genuen udal administrazio zenbaitetan hizkuntza bata, gaztelania edo euskara soilik erabiltzea. Oker ez banago, adibidetzat jarri nuen, Urolaldeko edo Lea-Artibaiko zenbait herritan euskara hutsez edo Arabako Errioxa edo Enkarterriko udalen baten erdara hutsez, halan egiten baita bestalde, eta ez elebitasunez gaur ere. Eta baita ere Administrazio Lokalean sartzen baitira mankomunitateak, amankomunean zenbait eskualde, eta berriz aipatu nituen Lea-Artibai eta Urola, euskararen erabilpen soilerako eta Enkarterri eta Arabako Errioxa gaztelania soilerako.

Transazioak egindako beste zenbait artikulua interesgarri izan daitezke, 2. artikulua, komunikabideena, 18., 18. bis eta 18. ter deritzanena, baita ere euskararen zabalkundea, irratian, egunkari eta aldizkarietan, zineman, antzerki eta ikuskizunetan, irudiaren eta hotsaren iragarpidetan.

Hurrengo akordioa ere interesgarria izan zen, alegia, 26.3. gero izango zena, transazioan 20. ter, alegia, aisialdiak, merkataritza, kultura, bazkun, kirol eta beste nolanhiko ekintzetan euskaraz ari daitezkeeneko bideak eskaintzeko, alegia, orain Biziberritze planean dagoen aisialdi deritzanerako.

27. artikulua izango zena, alegia, publizitate alorrekoa eta merkataritza, atsedenezko kultura, eta bazkun ofizialez erakundetako iragarki edo publizitatekoa.

29. artikulua ere eztabaida interesgarria izan zen, zeren eta hasiera batean 51. zuzenketa zena, hots, H artikulua berrian, Euskararen Kontseilu Gorena aipatzen zena jarri bagenuen ere, bere bi lerrokada eta bost azpillerokadarekin, gero, akordioaren ondoren, 29. artikulua izango zena, zeinetan euskararen topagune erakunde bat sortzea erabaki baitzen, hots, gero, Euskararen Aholku Batzordea lege garapenez berritua izango zena.

Erabaki gehigarrietako bat, lehena hain zuzen, akordioaren bidez gauzatu zen eta hara hor zer dioten testuak: "El Gobierno en el ámbito de sus competencias establecerá vínculos culturales con aquellas instituciones o poderes que actuando fuera del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma realicen actividades de investigación, confección y fomento del euskara". Noski, hau, Nafarroaz eta Iparraldeaz pentsatuta zegoen, bai hizkuntzaren Akademiagatik, Euskaltzaindiagatik, baita unibertsitate eta sor zitezkeen beste erakundeengatik. Inoiz edo behin aipatu da Axular Institutua ere, "Instituto Cervantes"-en antzera, baina gaur egun oraindik ez dena gauzatu.

Eta norbaitek galdetuko du ea zer giro zegoen legegintza aldi horretan. Hasteko 81etik

82ra, Tejeroren eraso eta LOAParen segidan ikusiko zen. Baita ere Sozialistak 82ko urriko hauteskunde ondoren, agintean hartu zuten beraiek, bai euskararekiko, bai katalanarekiko eta bai galegoarekiko, Gasteizko, Barcelonako eta Santiago de Compostelako Parlamentuetan alde bozkatutako zenbait artikulua ere, Gobernu Zentralak Auzitegi Konstituzionalera eraman zituen. Hori ere jakin beharko litzateke. Ez dugu izan astirik ez materialik eskura, banan-banan konfrontatzeko eta begiratzeko zeintzuk artikulua, gure Legebiltzarrean, aho batez edo beraiek alde bozkatutako artikulua zenbait, gero, Auzitegi Konstituzionalera joan ziren.

Dena dela, gaur egun baino indarren korrelazio askoz ere hobea genuen une haretan, atera zen moduan Legea ateratzeko. Uzta onuragarria izan zen dudarik gabe. Hainbestera, zeren eta geroztik HBko Mahaiak eredutzat jarri baitzuen gure Legea Nafarroarako bereziki eta amets gisa Iparralderako. Indar abertzale guztiek parte hartu izan balute seguru nago Legea oraindik hobea aterako zela. Orduan ahulago baitzeuden indar estatalistak, gaur indartsuago eta azkenengo unean, harroago baitaude, Araba lekuko.

Oraindik beste ikerketa zehatz asko egiteko daude. Bateron batena ikusi dugu, baina partziala da, sektarioa ez esatearren. Akordiorako izen batzuk aipatzearen, sailburu biez gain, Alberto Ansola batzorde parlamentarioen burua; Jose Antonio Zaldua, Legebiltzarreko lehen idazkari mahaikidea, istripuz, Itziarren hil zena; Inmaculada Boneta eta nire taldekide zen Jon Olaberria aipatuko nituzke. Prentsa ere hasiera baten, ondo aritu zen, gero, ez dakit nolako aginduz, sahiestu bazen ere kasuren baten.

Nafarroako "Ley Foral del Vasculencia" delakoaz zerbait esatea nahiko nuke, egungo xedetik kanpo gelditu bada ere azkenean eta hau da: Foru Hobekuntzaren 9. artikulua. Kontuan izan gabe, irakurri gabe ezin dela ulertu.

Eta Foru Hobekuntza Lege horren prolegomenoak eta Nafarroan sekula santan egin ez den transizioa begi bistan izan beharko genuke. Ez dakit konturatzen garen, ez II. Errepublikan, ez Franco hil eta geroztik, ez dela zoritxarrez Nafarroan transiziorik egin, are gehiago, bere agintean bere Foru Diputazio indartsuan beti batzuek agindu dutela etenik gabe, aparatuak aldakuntzarik ez duela egin, ez II. Errepublikaren hanka sartze handienetarikoa izan baitzen Diputazioetarako hauteskunderik ez egitea, ez hemen, ez beste inon "Comisiones Gestoras" delakoekin funtzionatzea eta horretaz kalte izugarria sortu zen Euskal Herriko lau herrialdeetan eta bereziki, Nafarroan. Transizioa aztertzea ere jakingarria litzateke.

## EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

Euskaltzaindiak hurrengo adierazpen hau egin nahi du “Proyecto de Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra” dela eta.

Aurretiaz azaldu nahi du, erakunde politikoa ez denez, ezin dela hasi Projektuari inolako gogoramen orokorrik egiten, Konstituzioari egin ez zion modura, salbu 3. artikuluari, berau Españako hizkuntzez ari baita (erantsitako 1. dokumentua). Aldi berean gogoratu nahi du, 1979.eko Maiatzaren 25ean, Iruñean ospaturiko batzarrean onartu zuen akordioa. Geroago aipatu akordioa, Nafarroan euskararen status delakoa (2. dokumentua) berretsi egin zuen ageriko bilkuran eta orduko Foru Diputazio Goreneko Burua zen Jaime Ignacio del Burgo jauna bertan zelarik eta baita Malon eta García de Dios jaun Diputatuak ere.

Hau dela eta 573/1976 E. D. delakoaren 1. artikulua babespian eta erantsitako Estatutuen 1. artikulua f (3. dokumentua) zera *kontutan hartzen du* alegia, Lege Projektuaren 9. artikulua euskarari diskriminaziozko tratamendua ematen diola, zeren bertan, bakarrik, egun Erresuma Zaharrean euskaraz hitz egiten den tokietan ofizialtasuna aitortzen dio, euskararen atzerakuntzarako oraintsu eta iragan mendean emandako arrazoi historikoak kontutan izan gabe; euskarak bizirik dirau erdal eremuetan hiztegi, esaldi eta, batez ere, toponimi eremuan; eta oro har, Nafarroako herriaren kontzientzia eta oroipen kolektiboan dirau, eta azken batez ondare orokorra euskara hitz egiten den eremua, mugatu ezin dena.

Kexa bizi-bizia azaldu nahi du hizkuntza biziari emandako tratamenduengatik, hau da, Euskal Herriko Autonomi Estatutuko 6. artikuluan eta Valenciako Komunitate Autonomoaren Estatutuko 7. artikuluan, 4. eta 5. dokumentuak eskaintzen zaiena baino ahulagoa baita. Aipaturiko Komunitate biok Nafarroak daukan egoera berbera daukate linguistika eremuaren desberdintzapenez, bai historia alorrean eta bai egungo egoeraz. Baina hizkuntza bei dagokien ofizialtasuna ez da aurretizko jiteaz murrizten.

Guztionengatik eta Uztaileko bilkura arruntean, Nafarroako euskal idazle baten bigarren mendeurrena dela eta, berau mintzairaz Nafarroa Garaikoa eta idazlearen sorterrian ospaturik. Hau dela eta, ezin du ixilarazi daukan kezka bizia, datorren foru legeak 9. artikulua garatuko duen itxaropenaz, beronek arazo hau behar den eran bideratuko duelakotan Gure Erakundearen eritzia jasorik eta baita Nafarroa Mailan eragina daukaten beste erakundeena ere. Euskaltzaindia aholkutze tekniko eta zientifikoa eskaintzeko prest legoke beronekin legislatzaileei laguntza emanez.

Azkenez, Euskaltzaindiak zera nabarmendu nahi du, hots, bai Lege Projektu hau eta bai eman ahal diren beste zenbaitzu hala Gorte Jeneraletan nola Komunitate Politikoei dagokionetan, euskara negatiboki jotzen duenean —berau Mendebal Europako hizkuntza zaharrena delarik— adi izango dela eta ahaleginak eginen dituela jagoten bizirik iraun dezan, bizkortzen eta garapen eskubideetan galtzaile ez irteteko.

Oiartzun, 1982.eko Uztailaren 17.an.

Foru Hobekuntza Legearen 9. artikulura itzulita, Legebiltzarrean bertan esandakoari iruzur eginaz gauzatu zela, ondorioz, Legea hiru zonaldetan gertatu zelarik. Euskaltzaindia izan zen ia erakunde bakarra 9. artikulua bere garaian salatu zuena. Hara hor Oiartzunen 1982ko uztailaren 17ko osoko bilkurak erabakitakoa (ikus eranskina).

Horretaz, hara hor zer esaten nuen *HITZ* aldizkariaren 1982ko urriko zenbakian:

«Nafarroak beste herrialde guztiak baino geografikoki eremu gehiago galdu du azken mende biotan. Zergatia aztertzea luzea litzateke: foru sistemaren ahulezia eta beherakada; hizkuntza kontzientziarik eza; Iruñeko Elizaren jokabidea (Baiona eta Gasteiz ez bezalakoa, euraren erabilkeran eta sostenguan); Unibertsitateak eza eta berandu lortu duenean Opuen esku pribatuetara erortzea; Diputazioa kontrolatu duen "nekazal burgesiaren" antieuskalduntasun reazionarioa...

Baina euskarari azken eztenkada "Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra" delakoak emango dio seguru asko. Eta hau da lantxo honen gaia.

Esan behar da hizkuntzei buruz tratamendurik eskasena duen Legea dela Espainiako Estatu osoan. Eta kasurako, alde izugarria duela Gernikako Estatutuaren 6. artikuluekin (...).

Eta inkursio honen ondoren itzul gaitzen "Amejoramiento" delakora. "Amejoramiento" k diona konparatzen badugu Valenciako Estatutuak hizkuntza arloan diotenarekin, askoz hobea dela bistan da. Eta Valencia badakargu lan honetara arrazoi batetatik da, Galizia, Kataluña eta Balearietan gertatzen ez den bezala, bere hiru probintzietan eskualde batzuk gaztelania dute bere hizkuntza eta beste batzuk, katalana, hemen Araban, Bizkaian eta Nafarroan gertatzen den bezala. Hala eta guztiz ere, hizkuntza biak dira ofizial Komunitate Autonomo guztian, erabilpenaren tratamendua bere Gorteen lege baten bidez bereiztuko bada ere eskualdearen arabera, normala den bezalaxe. Nafarroan ordea UCD, PSOE eta UPNk indioen erreserba baten antzera zokoratu nahi duten euskara basaburu ibar batzuetan inguratuaz (...).

Txarragoa dena, Valencian, baita UCDko valencianista atzerakoenak ere onartu dute azkenean, artikuluen 4. lerrokada hau: "Se otorgará especial protección y respeto a la recuperación del valenciano"».